

Literatura

Bukatu gabe, askoz hobe

Egileak ez zion azken punturik jarri eta hala ere, literaturaren maisulana bihurtu da: bukatu gabe dauden obra batzuekin gertatzen da, klasiko unibertsal bihurtzen direla. Beste batzuekin, nazioarteko arrakasta lortzen dutela, Stieg Larssonen *Millenium* sailak bezala.

Baina, zer balio du bukatu gabeko nobela batek?

GORKA BEREZIARTUA

IMAJINATU: irakurle bat, arrunta, zu bezalako; bi begi, bi hanka, agian betaurrekoak. Planeta honetako irakurle gehienek bezala, urte osoan ez dauka denborarik literaturaren klasiko mardulenei behar bezala ekiteko: beti sartzten da tartean lanen bat, erosketak egin beharra, umeak... Eta ezin kontzentratu. Horregatik, abuzturako uzten ditu zapata kaxen tamainako liburuak. Uda honetan, aspalditik leitu gura zuen nobela bat hartu du: Jaroslav Hasek-en *Xveik soldadu onaren menturak*. Edizio eder bat hartu, 700 orrialdetik gorakoa, eta eguzkitara etzan zaizu, baita liburua osorik irentsi ere, egun batzuen buruan. Baina azken orrialdean honako oharrarekin egin du topo “Honaino diktatu zuen Jaroslav Hasekek, jada gaixo. 1923ko urtarrilaren 3an hila, ezin izan zuen obra finitu”. Gure irakurle imajinarioak, harrituta, Internetera jo du, informazio bila. Antza, Hasekek sei zatitako nobela idatzi nahi zuen, baina lau bukatu aurretik tuberkulosiak jo, azken eztula egin eta sartu zuten hobira.

Triste geratu da gure alegiazko irakurle hori jakin duenean. Bizi erdia nobelari eskaini, eta gaitz txar baten erruz ezin bukatu. Gizajoa Hasek.

Baina gero pentsatzen jarri da, hain txarra ere ez dela izango haren patua: bukatu gabe dagoen obra hori Txekiako literaturaren gailur altuenetakoa dela; gerraren aurka idatzitako nobela onenetako bat; geroztik eskribitu diren satira militarrentzat faroa. “Bukatu gabe dauden obra gutxik lortuko zuten hori” otu zaio. Eta animoa piztuta, udarako erreserbatuta zeuzkan liburuen apalera jo du, beste adreilu baten hartzera.

Oraingoan meheagoa: Irene Nemirovskyren *Suite frantsesa*, 500 bat orrialde. Hitzaurretik jakin du, ordea, bukatu gabe utzi zuela Nemirovskyk: bost nobelako proiektua, beste egitasmo handi asko bezala, Auschwitz-eko labeetan erre zen 1942an. Etxera bila etorri zitzaizkion egunean bi eleberrri zeuzkan bukatuta Nemirovskyk, eta hirugarrenaren eskema.

Berriro ere heriotzarekin egin du topo imajinatzen ari garen irakurleak: idazlearen heriotzarekin, eta bidean zen nobelarenarekin. “Ez da ba oso normala hau...”. Baina tira, Nemirovskyrena utzi, eta aspaldiko liburukote bati heldu dio: Geoffrey Chaucerren *Canterburyko ipuinak*. Hau bai, hasi eta bukatu du, gustura. Tanto handia izango da gainera: irakurleak irrikaz espero du bere lagun intelektualekin –horiek ere imajinatu egin beharko dituzu– bilduko den unea, liburuari buruzko gogoetaren bat handik edo hemendik sartzeko. Eta unea iritsiko denean, lotsa gutxirekin aitatu du *Barkamen-saltzailearen ipuina*, nola istorioak pentsarazi egin dion heriotzaz, diruzaleatasunaz... “Bukatu gabe ez al zuen utzi liburu hori?” galdetuko dio lagunetako batek. Eta beste batek baietz, idazle anonimo batzuek osatu zutela obra beraien ipuinekin, adituak ez daudela ados istorio batzuen egilea nor den zehazterakoan, tar, tar, tar...

Irakurle imajinarioak ezin izan dio negarrari kontu egin. Eszena melodramatiko samarra jokatu du, zure buruan irudikatzen ari zaren kafetegi horretan. Baretu denean, lagunei azaldu die azken aldi gertatzen ari zaiona: bukatu gabeko obrak besterik ez dituela irakurtzen, eta gainera, jende gehie-

Azken esaldia baino ez zitzaion falta nobela bukatzeko. Ideia argi samar zeukan: kolpe bat eman nahi zuen istorioaren amaieran, irakurlea arnasik gabe utzi. Baina orduan, zera gertatu zitzaion



nak literatura ontzat, are, bikaintzat dauzkala. Ezin sinetsizkoa egiten zaio: nola izango du balio bera egileak bukatu ez zuen nobela batek, azken puntua behar bezala idatzi diotenaren aldean?

Lagun batek kontra egin dio. Esan du: “Batzuetan idazlea da bere obraren etsairik handiena”. Irakurle imaginarioa, esaldiaren gehiegizko borobila entzunda, haserretu egin zaio: “Hori esateko, hobe duzu isiltzea: hori da... *bontade* bat, besterik ez. Hitzak, hitzak, hitzak”. Lagunak: “Ez: hori da... hori da *egia*. Zenbat idazle dago munduan, itxuragabeko perfekzionismoaren erruz nobelaren argitalpena atzeratzen duena, urte bat, beste bat... Eta bitartean hau zizelkatu, hemendik kendu, handik gizen-du... Azkenean erabat desitxuraturata argitaratzen da istorioa, hasierako garra itzalita...”.

Eztabaidak luze jo du. Zerbitzariak –23 urteko neskatila blonda eta liraina; ala, imaginatu duzun kafetegiaren arabera, Bud Spencerren tankerako gizonkote gordina– ixteko ordua dela esan die. Mahaian zer egongo dira, 30 bat garagardo botila huts? Horrelako zerbait. Bakoitza eramaterakoan eztabaidaren puskaren bat entzun du zerbitzariak: Franz Kafkak ez zituela bukatu *Prozesua*, *Gaztelua* eta enparuak; ea Italo Svevo-ren *Bidaia sentimental laburrak* merezi ote duen klasiko unibertsalen zerrendan azaltzea; Roberto Bolañoren *2666* bera ere bukatu gabe dagoela, azken partea luzeagoa

**Nobelak balio bikoitza du
bukatu gabe:
testuaren balioa, batetik;
“izan zitekeen testua”-rena,
bestetik**

egin nahi zuelako... Eta noski, Jorge Guillen ezin izan dute aipatu gabe utzi: *Canticok* lau edizio diferente izan zituela, aldiro gizenago; 23 urte behar izan zituela poetak liburua bakean uzteko.

Imajinatzen ari garen istorioak errealista izan beharko balu, esango genuke lagunak ez duela konbentzitu gure irakurle asmatua; ezta honek hura ere. Baina ez gara gure pertsonaiarekin hain zikinosoak izango. Demagun baietz, konbentzitututa itzuli dela etxera: bukatu gabeko obrak ere gauza ona direla uste du orain. Izan daitezkeela bukatutakoak baino hobeak ere. Are, obra horien balorazioa bi espaziotan egin daitezkeela: espazio testualean, batetik, beste edozein lan bezala; baina baita espazio potentzialean ere. Nobela bat, bukatu gabe uzten denean, ez baita testua edo istorioa bakarrik. Testua da, bai; istorio bat. Baina horri gehitu behar zaio “izan zitekeena”. Eta gehitutako balore hori, nahi izanez gero, infinitua da.

Horretaz jabetzeak asko lagundu dio irakurleari, psikologikoki orekatuagoa dago, nahiz eta garagardoek balantza eragiten dioten giltza sartzen saiatzean. Irakurtzeko gogoia dauka. Eta goizeko ordu txikietan Michael Kruger-en *Nobelaren amaiera* liburu-txoa hartu du. Idazle baten istorioa kontatzen du, eleberritar batean hemezortzi urte inbertitu ondoren, azken esaldiarekin trabatzen dena. Eta hasten da kentzen, eta ia nobela desagerrarazten du. Bain... ■